

DROGETEN

ITURRI



Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 252. zenbakia. 2017ko urtarrila



**Eskulaneen bitartez,
gizarteratzearen bidera**



Bizitzen ikasteko, haurrentzat egina!



HURBILDU ZAITEZ GURE PROIEKTUA EZAGUTZERA!

**MATRIKULAZIOA
ZABALIK**

**Urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era**

KONTAKTUA

**943 17 90 36
eskola@eskolabarri.es**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Gaizka Areitioaurtena,
Juanmi Bravo,
Antonio Hernández 'Cuco',
Eskolabarri Eskola,
Patxi López,
Oihane Luengo
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Amaia Arginzoniz,
Iker Barrondo,
Paul Bustindui,
Eskolabarri Eskola,
Nerea García,
Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga,
Valentin Mugarza,
Ni Nerea naiz ipuina,
Jesus Santos
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Amaia
Arrondo eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Alkate jaunaz (Entzuteko: www.alboka.es)

Alkate jaunaz egondu gera
atzoko arratsaldian,
libertadia gurekin degu
ibiltzeko bakian.

Bakian gabiz bakian,
danok umore onian,
bakian ezpagabiltza, barriz,
sartu kartzela batian.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Iker Barrondo (Brusela)	BOTEPRONTOAN.....16 Ana Erdoiza
ELKARRIZKETA5-7 Nerea García, ume transexualaren ama	ESKOLEN TXOKOA17 Eskolabarri Eskolako berriak
MALLABIAN ZER?8-9 Aitor Elordi pilotaria	IRITZIA18 Hezkuntza Ermuan.
MOTZEAN10 Izan zaitetz Euskal Birusaren bazkide!	ZORION-AGURRAK19 Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA12-13 Caritaseko tailerrak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?.....14-15 Jesus Santos / Hartza Eguna	KALEKO INKESTA21 Tonbola Solidarioa ezagutzen duzu?
	OTSAILEKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Iker Barrondo

2012an alde egin zuen Ermutik, karrera bukatutakoan. Ermuar honek urtebete igaro zuen Ingalaterran, ingelesa ikasten; Masterra egin zuen jarraian, Estonian; eta lanak Bruselara eramane zuen azkenik. Bertan dihardu egun.

- Erabaki erraza izan zen kanpora joatea?

Lehen aldiz etxetik irtetea erraza da, baina zenbat eta denbora gehiago kanpoan igaro, orduan eta garbiago ikusten duzu zer den zure sorterritik gehien gustatzen zaizuna, zer botatzen duzun faltan eta nolako egunerokotasuna nahi duzun. Azkenean Bruselara etorri nintzenez, ez zitzaidan batere erraza egin berriro etxetik joatea, baina oso lan-aukera ona eskaini zidaten.

- Nola imajinatzen zenuen Brusela?

Bizitzera etorri baino lehen hiria ezagutzen nuen, eta nahiko inpresio ona nuen. Belgikako zerbezaren zale amorratua izan naiz betidanik!

- Zerbaitek harritu zintuen?

Harritu egin ninduen nire etxeko dutxa sukaldean zegoela. Nire lehengusua eta biok bertan egon ginen bizitzeko, eta goiz askotan, ni dutxatzen nintzen berak

azenarioak zuritzen zituen bitartean. Uste dut nahiko ohikoa dela hemen (dutxarena, ez azenarioak zuritzearena e!).

- Ondo moldatzen zara hizkuntzarekin?

Belgikako flandestar aldean dagoen arren, frantsesa da Bruselako kaleetan gehien entzuten den hizkuntza. Hala ere, bai lanean bai kalean ondo moldatu zaitezke ingelesez. Frantses gutxi dakit, eta gosez ez hiltzeko erabiltzen dut berau.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Noski: familia, lagunak, eta neska-laguna (urrutiko harremani eustea ez da erraza). Aipatzekoa da, hemen norbait ezagutzen dudanean, badakidala epe laburrean nire bizitzatik desagertuko dela. Beraz, faltan botatzen ditut harreman horiek, zeinetan pertsonak gertu jarraitzen duten, urteak igarotzen badira ere. Kroketak ere faltan botatzen ditut!



Iker Bruselako Monts des Arts begiratokian. Atzean, Grand Place plazan dagoen Udaletxearen dorre nagusia ikus daiteke.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

9:00 eta 10:00ak bitartean sartu ohi naiz lanera eta 18:00 edo 19:00etan irten. Ordurako, hiri mamua da Brusela, etxean egoteko kultura handia dago. Ostiral eta larunbatetan eraldatzen da, eta giroa ikusten da kalean, hala ere, modan dago norbaiten etxera joan, eta garga-gardo batzuk edatea tabernatara joan aurretik.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Gabonetan aste pare bat igaro ditut Ermuan, eta familiak gizendu egin nau, beti bezala!

- Uste duzu Ermura bizitzera bueltatuko zarela?

Bai, zalantza barik. Eta Ermura ez bada, Euskadira seguru. Uste dut hango egunerokotasuna munduan bakarra dela.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

1968tik Ermua euskalduntzen



Nerea García, haur transexualaren ama:

**“Gizartea hain atzeratua egongo ez balitz,
ume hauek ez lirateke operatu behar”**

Nahiane duela 9 urte jaio zen. Mutiko baten genitalak izan arren, neska sentitzen zen, eta hori adierazteari ekin zion txiki-txikitatik, tinko eta etsi barik. Umekeria zirudiena, gauza serioa bihurtu zen, eta egun Nahiane da Gurutzetako Ospitalean tratatu duten lehen haur transexuala. Umearen zorientasuna ekarri duen egoera honetara heltzeko, baina, Nerea García ermuarrak eta bere familiak bide luze eta gogorra egin behar izan dute alabarekin, ezjakintasunetik abiatuta. Azkenaldian haur transexualen gaia azalerratu bada ere, Nerearen ustez lan handia egiteko dago sexu eta sexu-identitatea bereizten ikasteko.

- **Noiz eta nola adierazi zuen aurreneko Nahianek neska zela?**

Bi urterekin hasi zen, adin horretan hasten baitira umeak bere izaera eta gustuak modu argian erakusten. Haurtzaindegira eramaten nuenean, lepokoa buruan jartzen zuen, bere ilea izango balitz moduan. Gero jolasekin, marrazki bizidunekin... Bere gustuko guztia arrosa zen.

- **Eta hitz egiten hasi zenean, bere joera hitzez sendotu zuen?**

Bai, esaten zigun ez zitzaiola gustatzen nola jantzen gunden, eta hiru urtetik lau urtera-edo, arropa erostera joaten ginenean, nesken arropa zegoen aldera jotzen zuen. Esaten zigun ez zituela gustuko erosten genizkion kotxeak eta baloiak. Egia da panpinekin ere ez zuela asko jolasten; pelukak eta jostailuzko takoiak erostea gustatzen zitzaion. Baina tira, umeen gauzak zirelakoan, ez genion garrantzi handirik ematen.

- **Baina nagusitzen joan zen...**

Bai, eta etxean askatasuna ematen genion nahi zuen bezala jolasteko; kalera joateko orduan, aldiz, aurreiritzi gehiago genituen, takoiekin irten nahi bazuen, esaterako.

- **Haserre egiten zenioten?**

Batez ere bere aitak, gizonen gehiago kostatzen zaielako. Nik ez nion garrantzirik ematen, baina batzuetan hegoak moztzen nizkion.

- **Nola moldatzen zen eskolan?**

Neskekin jolastu nahi zuen beti, eta triste etortzen zen batzuetan etxera. Neskek taldetxoa egin eta bera mutila izanik ez ziotelako jolasten lagatzen, adibidez. Lau urterekin Haur Hezkuntzako 1. mailan hasi zen eta irakaslearekin hitz egin nuen, umea begiratzeko esan nion, adi egoteko. Eta hark baieztatu zidan neskekin egoten zela, neska bezala margotzen zuela bere burua, ile luzearekin eta gonarekin...

- **Eta egun batean laguntza eskatzea erabaki zenuen, zein izan zen inflexio-puntua?**

Lau urterekin oso argi esaten hasi zen neska izan nahi zuela. Olentzerori ere neska izatea eskatzen zion. Galdeztzen zigun ea hil zitekeen eta berriro jaio neska izateko... Berak neskatzen zuen bere burua, eta irtenbideak bilatzen zituen helduok ere horrela ikusteko. Halako batean esan zidan hiltzeko gogoa zuela ezin zelako neska izan. Orduan pediatararekin hitz egin nuen, eta hark gomendatu zigun sexologo batekin hitz egitea, ohartu zelako ez zela psikiatria kontua.

- **Eta hor hasi zineten umea askeago uzten?**

Beno, sexologo horrek *trans* hitza aipatu zigun aurreneko, baina hala ere guk egora frenatzen jarraitu genuen, oraindik oso ume txikia iruditzen zitzaigulako. Behin



erabaki genuen egun berezia igaroko genuela, eta bera eta ni Bilbora joan ginen egun-pasa. Nesken arropa erosi zuen, eta jantzi. Nola erreazionatzen zuen ikusi nahi nuen, eta bere aurpegia argiz bete zen, zoriontasunez. Oso mutiko barnerakoa zen, beti zegoen nire ondoan eta jendearengana irekitzea kostatzen zitzaion; egun horretan, ostera, zorotxo bat izan zen, ez zen erreprimitu. Ni, ordea, lotsatuta nengoen, ezagunen bat ikustearen beldur.

- **Egun berezi hori erreprimatu zenuten?**

Bai, oso polita izan zelako, baina azkenean konturatu ginen umea zen bezalako agertu ahal izateko, gure bizilekutik, Gasteiztik, alde egiten genuela.

- **Zein izan zen hurrengo pausua?**

Informazioa bilatzen hasi nintzen. Transexual helduen elkarteetan kuxkuxeatzen hasi nintzen (umeen arloan hutsune bat zegoelako), eta bertako kideei galdetu nien ea noiztik zekiten gizon edo

emakumeak ziren, eta denek esan zidaten berdina: betidanik. Euren haurtzaroz hitz egin zidaten, eta guztiak ziren tristeak, penagarriak: frustratuak bizi ziren, ezkutatuta... Nik ez nuen hori nahi nire alabarentzat!

- **Aurrera egitea erabaki arren, zeintzuk ziren zure beldurrak?**

Munduko beldur guztiak nituen: jendeak umeaz barre egingo ote zuen, min egingo zioten, ez zuten uler-tuko, kaletik señalatuko gintuzten, ni zorotzat hartuko ninduten umeari izaten uzteagatik...

- **Eta zeren beldur zen Nahiane?**

Berak ez zeukan beldurrik, oso ausarta izan da. Gero azaldu nion medikuak hanka sartu zuela bera jaio eta sexua bereiztean, eta ez zela mutila, neska baizik. Begiak argitu zitzaizkion, pozarren: "Ikusten, arrazoa nuen!!".

- **Eta tratamenduren bat hasi zuen?**

Ez, hain gazte direnean ez dira tratatzen, gizarte-transitoa egiten dute bakarrik

“Esan zidan hiltzeko gogoa zuela ezin zelako neska izan”






ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

(hau da, arropa aldaketa). Hala ere, Gurutzetako endokrinok kontrolatzen du, eta hurrengo pausua izango litzateke blokeatzaileak ipintzea, mutil bezala ez garatzeko; ostean, nesken hormonak hartzea, txiki ez garatzeko.

- Nola kudeatzen da horrelako egoera bat familia barruan?

Zaila da. Gaur egun informazio asko dago; gure momentuan, ez genekien nora jo.

- Eta nola azaldu zenuen guzti hau eskolan?

Bost urterekin, aipatu dudana transitoa egitea erabaki genuen. Lehenengo eta behin, bilera egin genuen eskolako beste gurasoekin: Nahianeren egoera eta sufri-mendua azaldu genien, eta eman behar genuen pausua azaldu. Ondo hartu zuten, eta ez zutenek ulertu behintzat errespetatu zuten. Umeei azaltzeko, aldiz, ipuina idatzi genuen, gerora argitaratuko genuena *Ni Nerea naiz* izen-

burupean. Bospasei urteko ume horiek oso ondo ulertu zuten, eta batzuk emozionatu egin ziren gainera.

- Ni Nerea naiz ipuinean hainbat laguni eskertzen diezu euren babes. Baten bat nabarmenduko zenuke?

Dauden guztiak dira garrantzitsuak: irakaslea, nire familia, sexologoa... eta Eva Witt, estatuko Chrysallis elkartearen presidentea, gai honetan funtsezkoa izan baita nire bizitzan. Errespetuz Elkar-tea ere aipatuko nuke (Pertsona Transexualen Defentsa eta Integrazioarako Euskal Elkar-tea), transexualen hitz egitea oso lagungarria izan zelako.

- Eta badao faltan bota duzunik?

Bai, Eusko Jaurlaritza. Oso galduta ikusi dut Familia Politikaren arloan, beldurrez. Chrysallis Euskal Herria sortu arte (duela 3 urte), Jaurlaritza ez zigun kasurik egiten, baina egun ere ez da asko inplikatzeko. Adingabe Transexualen Familien Elkar-tea da Chrysallis. Estatu mailan duela 4 urte sortu zen, eta ni bertako presidenteordea izan nintzen. Hamar familia hasi ginen, eta orain ia 400 gara.

- Azkenaldian haur-transexualitate mahai gainean jarri da, ezta?

“Eusko Jaurlaritza oso galduta ikusi dut, beldurrez”

Bai, orain pasada bat da, informazio piloa dago. Alde medikoa ere hobetu da: lehen 16 edo 18 urte bete arte ezin zen tratamendurik hasi, zilegi ez ziren proba asko egiten zizkieten, eta ez zuten NANik, esaterako. Errealitate hau beti existitu da, baina Elizak betidanik ezkutatu izan du begi onez ikusten ez zuten guztiak.

- Transexual hitzak konnotazio negatiboak ditu?

Gurasoei hitz bortitza iruditu zaigu beti. Nik gero eta gutxiago erabiliko nuke, zakila duen neska esango nuke. Izan ere, hain atzeratuta egongo ez bagina, ume hauek ez lirajteke operatu behar. Urteekin jendeak onartu beharko luke dibertsitatea, eta pertsonaz maitemindu, genitalei erreparatu gabe.

- Gizartea horretarako prest dago?

Begira, azkenaldian eztabaida handia egon da Chysallisen kanpaina batekin. AEB-ko dirudun batek Elkar-tearen xedearen berri izan du, eta 30.000 dolar eman dizkigu nahi bezala erabiltzeko. Chysallisek zabalkunde kanpaina

egitea erabaki du, eta Euskal Herriko eta Nafarroako hiriburu-tako markesina guztietan marrazki batzuk ipini ditu: zakila duen neska, bulba duen mutila, bulba duen neska eta zakila duen mutila. Bada, sekulako iskanbila sortu da. Facebookek zentsuratu egin zuen lehen egunean eta pintadak agertu dira hainbat tokitan. Baina berdin zaigu: gure seme-alaben zorientasuna nahi dugun gurasoak gara, eta horretarako gai hau normalizatzea beharrezkoa da.

- Horretarako ezinbestekoa da komunikabideetan agertzea?

Bai, jendeak honen berri izateko ikusgai jarri behar dugu gure burua, eta Nahiane eta ni sarritan agertu izan gara. Transexual nagusiak ez dira askotan aintzat hartzen, prostituzioarekin eta drogekin lotu izan ohi dira; ume bat entzutean, aldiz, gaia ez da hain beltzat eta zikintzat hartzen. Hala ere, badugu erretiratzeko gogoia, deskantsatu, umea babestu. Beste familia asko daude, eta euren txanda da orain.

Dorleta Vidal



Ni Nerea naiz ipuina edozein liburu-dendatan eskatu daiteke.

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

Hamburguesería TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

 **NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com


CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Aitor Elordi, pilotaria:

“Pilotak aguantatzen duen bitartean ahalik eta gehien gozatu behar da”

Dagoeneko urte bat eman du Aitor Elordik (Mallabia, 1996) eskuzko pilota profesionalean. Berrogei partidatik gora jokatu dituen arren, betiko bizimodua mantentzen du, Aitorrek argi baitu pilota munduak iraungitze epea duela. Duela gutxi ospatutako promozioko lau t'erdiko txapelketaren finalean sartzeko zorian egon zen eta binakakorako gogoz dago. Behin profesionalean adaptazio denbora bat igarota, pilotari munduan zeresana eman nahi du eskuan narruzko pilotarekin hasi den Mallabiko gazteak.

- Duela urte bat debutatu zenuen profesionalean Eibarko Astelena frontoian. Pilota profesional mailan eman duzun urte honetako ze balantze egiten duzu?

Balantzea ona da, debutatu eta aurreneko hilabeteetan kostatu zitzaidan erritmoa hartzea. Aurreneko urte hau profesionaletako erritmoa hartzeko eta nire lekua aurkitzeko izan da. Orain momentuan hobeto aurkitzen naiz, debutatuen momentutik hona ikusten dut aurrera egin dudala, beraz urte positiboa izan da aurreneko hau.

- Debutatu baino lehen denbora eman zenuen entrenatzen. Salto handia nabaritzen da afizionatu mailatik profesional mailara?

Debutatu baino lehenago aurrekontratu bat neukan Asperekin eta beraiekin entrenatzen hilabete batzuk eman nituen. Afizionatu mailatik profesional mailara saltoa badago, pilotariaren araberakoa da baina. Azkenean pertsona bakoitzari gutxiago edo gehiago kostatzen zaion jautzia da. Niretzako oso handia izan zen, afizionatu mailan ez bainuen denbora asko eman,



horregatik esan daiteke ez nintzela nolabaiteko oinarri batekin iritsi. Orain banaoa erritmoa hartzen eta gusturago sentitzen.

- Behin adaptazio denbora pasa ostean gusturago aurkitu zara kantxan. Lau t'erdiko promozio txapelketan finalerdietara iritsi zinen. Txapelketaren zein balorazio egiten duzu?

Banekien normalean lau t'erdiko txapelketa jokatuiko nuela, horregatik aspalditik hasia nintzen txapelketarako entrenamenduak egiten, eta joko puntu onarekin iritsi nintzen bertara. Lehenengo partidak oso onak irten zitzaizkidan eta finalerdietara iritsi nintzen. Mallabian jokatu zen finalerdi hartan Dario erraz gailendu zitzaidan, baina nire

aurreneko lau t'erdiko promozio txapelketa zen eta pozik gelditu nintzen.

- Mallabiko finalerdi haieran lagunak bultzada ez zitzaizun falta.

Debutean, Mallabiko finalerdietan eta momentu garrantzitsuetan inguruko jendea eta batez ere lagunak hor egon dira animatzen eta horrek ilusio handia ematen du. Azkenean hor daude nirekin, momentu txar zein onak batera igarotzeko.

- Orain binakako promozio txapelketa hasi berri duzu Xabi Erostarbe urretxuarrekin batera. Hainbat aldiz jokatu izan duzue elkarrekin, ezta?

Afizionatu mailan ibili izan ginen eta profesional mailan ere partidu batzuk

“Inguruko jendea eta lagunak beti egon dira animatzen, eta ilusioa ematen du”

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

jokatu izan ditugu elkarrekin eta nik uste dut apurka-apurka konpenetratzen joango garela bikote modura aurrera joateko. Nire jokorako oso atzelari egokia da, kolpe handia daukanez nik aukera gehiago izango ditut tantuak egiteko. Bikote polita osatuko dugu.

- Aurtengo promozio mailako txapelketan gazte ugari zaudete. Zein helburu jartzen diozu zure buruari txapelketa hone tarako?

Txapelketa polita da. Afizionatu mailan egon ginen pilotari askok bat egin dugu profesionaletan. Bikoteen mailari dagokionez, guztiak oso parekoak dira, eta dena dago oraindik airean. Helburuei begira, aurrenekoa finalerdietan sartzea izango zen. Aurrenez horretan pentzatu beharra dugu Erostar-

bek eta biok, eta gero, iritsiko dira ondorengoak.

- Beti esan duzu aitonarengandik jaso duzula pilotararako pasioa.

Gaztetan Berriatuan bizi nintzen eta gero gurasoak hona etorri ziren aitonamonak hemengoak baitira. Gurasoek ni zaintzerik ez zutenean, aitonarekin pasatzen nuen denbora gehiena eta frontoian ematen genuen. Bera eta bere anaia pilotan ibili izandakoak dira. Eskolatik irtetean bokadilloarekin batera pilota bigun bat ekartzen zidan. Esan daiteke berarekin eman nituela aurreneko urratsak Mallabiko pilota eskolan sartu baino lehen.

- Nolako da pilotari baten egunerokoa?

Azkenean pilotari bakoitzak bere egunerokoak ditu. Nik profesional mailan pilo-

“Mendiko motorrak asko gustatu zaizkit txikitatik”

tan jokatzen dudan arren ikasketekin jarraitzen dut. Lehen afizionatu mailan neukan bizimodu bera jarraitzen dut, ezin dut esan ezer aldatu zaidanik profesional mailan. Pilotarien bizimodua motza da, eta zeozer prest eduki behar da hori amaitzen den unerako, bizitzan aurrera egiteko. Oraingo momentuan pilotak aguantatzen duen bitartean ahalik eta gehien gozatu behar da, baina beti ere ikasketak ahaztu gabe.

- Txikitatik frontoian ibili zaren arren, pilotaria izango ez bazina zer izango zinateke?

Kirolei dagokienez, pilotako ibilbidea hartu izan ez banu futboleko ibiliko nintzateke. Gaztetan bi kirolak batera praktikatzen nituen, baina une batean pilotaren bidea hartu behar izan nuen. Esan beharra daukat, hobby moduan betidanik mendiko motorrak gustatu zaizkidala, eta beharbada denbora gehiago eskainiko nien pilotaria ez banintz izango.

- Aspaldian pilotari bizkaitarren eztanda gertatu da. Gauzak aldatzen doaz pilota munduan?

Azkenean profesional mailan lehendik Pablito Berasaluze eta Urrutikoetxea zeuden arren, azkenaldian Elezkano, Irusta eta beste batzuk irten gara. Bagara profesionaletan bertan egoteko maila dugun pilotariak, eta nafarrei eta gipuzkoarrei gauzak estu jartzeko gerra emateko gogoia daukagu!

- Gero eta gazte gutxiagok hartzen du pilotaren bidea. Zer esango zenien pilotan hasten dauden umeei?

Pilotan denbora aurrera joan den heinean, konturatzen noa oso kirol sakrifikatua dela, momentu on eta txarrak bakarrik igaro behar baitira. Baina kirol honek daukan xarma berezia da, eta konpenzatu du. Pilotan jokatzen ari diren gazteak animatu nahiko nituzke pilotan jarraitzeko, bertoko kirol bat dela, gure kultura barnean dagoen eta guztion artean zaindu behar dugun altxorra dela.

Paul Bustindui



Modas Candé
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

MUGA

KIROLAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

III. FRONTENIS TXAPELKETA BURUTU ZEN MALLABIAN

Mallabiko Gabonetako Frontenis Txapelketan David Gonzálezek (Villarcayo) eta Ander Jaiok (Zornotza) irabazi zuten txapela. Urtarrilaren 7an jokaturako finala, 8-3 gailendu zitzaion Joseba Etxeberriari (Gasteiz) eta Karlos Ramírezi (Errioxa). Txapelketa honetan Euskal Herriko puntu guztietatik, zein ondoko probintzietatik etorritako 24 bikote aritu ziren lehian 13 orduz.

BERBALAGUNEK HAINBAT EKINTZA EGINGO DITU

Otsaila hilabete oparoa izango da Ermua eta Mallabiko berbalagunentzat. Hilaren 1ean, 8an, 15ean eta 22an, smartphoneak ondo erabiltzeko ikastaroa burutuko da Ermuko KzGunean, 18:00etatik 20:00etara. 17an, berriz, Gurasolaguneko saioa egingo da, eta bertan Euskal Herriko inauterietako jantzi bat sortuko da (ikus 15. orria). Otsailaren 23an, azkenik, berbafaria egingo da Arari Elkartean 21:00etan (6-8€). Mallabitarrek ere euren berbafariak gozatzeko aukera izango dute otsailaren 2an, 21:00etan Izar Gorri elkartean. 23an, Eguzi Zuri, Gurasolagun Irekia egingo da Mallabiko Eskolan, eta gaia inauterietatik izango dira.

D ereduan matrikulatzeko kanpaina abian da

2 eta 3 urte bitarteko umeen aurre-matrikulazio epea urtarrilaren 30etik otsailaren 10era egongo da zabalik, eta hori dela-eta, D ereduaren aldeko kanpaina jarri du martxan zazpigarrenez Euskal Birusa Elkartek. Ekimenaren barruan kartelen pegada egingo da atariz atari lelo honekin: "Matrikulatu D ereduan. Kalitatezkoa, aberasgarria, integratzailea... Dlako. Etorriz eleanitzaile ondoen prestatzen dituelako!". Gaur egun bi ikasketek eskaintzen dituzte ikasketak D ereduan Ermuan: Anaitasuna Ikastolak eta Ongarai Eskolak. Hainbat urtetan martxan dagoen ekimenarekin jarraitzeko beharra ikusten du oraindik Euskal Birusak, gurasoak euren seme-alabak D ereduan matrikulatzera animatuz.

Izan zaitez Euskal Birusaren bazkide!

Ermuaren artean euskararen erabilera indartzen jarraitu nahi du Euskal Birusa Elkartek, eta xede hori lortzeko beharrezkoa da martxan dauden ekintzei eutsi eta berriak antolatzera. "Bide horretan, bazkideen laguntza ezinbestekoa da", dio Elkarteko koordinatzaile Amaia Arriagak. Urtean 35 euroko kuota ordaintzen dute bazkideek, eta jubilatu eta ikasleek 20 euro. Otsailaren 16an kobratuko dira kuotok, beraz, azken urtean helbideratze datuak aldatu dutenek lehenbailehen jakinaraztea eskertuko lukete Elkarteko arduradunek. Bazkide egiteko edo informazio gehiago eskuratu nahi duenak Elkartearen bulegora jo beharko du (Erdikokale zeharbideko 2 peorako lehen pisura), 943179350 telefonora deitu edo euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi.



Bertso-poteo arrakastatsua Torrekua tabernan

Bertako jabeek antolatuta eta Bertso Eskolaren laguntzarekin, bertso-poteoa burutu zen Torrekua tabernan urtarrilaren 19an. Unai Iturriaga eta Andoni Egaña bertsolariak aritu ziren bertan, 25 lagun ingururi euren onenak kantatzen. Jarraian pintxo batzuk jan eta bertsoekin bukatu zuten berriro ere jarduna. "Beldur apur bat genuen, formatu berria zelako, baino giro ederra sortu zen eta datorren urtean ere errepikatzeke asmo dago", diote antolatzaileek. Isik eta Silviak, Torrekuako jabeek, Caserio taberna zuten lehen Amañan, eta urtero bertso-afaria egiten zuten jaietan. Orain, ohitura hori berreskuratu nahi dute Torrekua tabernarekin, eta lehen emanaldia bikaina izan da!




Udal Euskaltegia
 Teresa Murga Eraikina
 Goienkale z/g 2. solairua
 ERMUA · 943 170 925
 ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

 **ORBE**
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
 Zearreko Buelta 2
 943 17 66 34 - 630 01 13 41
 48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
 48260 Ermua (Bizkaia)
 943 17 98 60
 persianasorbe@gmail.com

DROGETEN ITURRI
Publizitatea:
 943 179350
 688 632876
 drogeten@gmail.com

T **XALAPARTA**
ABERNA

**Eta asteburuetan
 pintxoak, afariak
 eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

Heapaindegia 

MT

MT Heapaindegia
 C/ Marqués de valdespina n° 8 bajo
 48260 Ermua (Bizkaia)
 tf. 943170474
 Movil. 688819336

Silvia Gastón Izaquirre
 facebook. <https://www.facebook.com/heapaindegiamtpxhuera>



**ZORATU BEHARREAN
IBIL EZ ZAITEZEN,
ALDUNDIA ONDOAN
IZANGO DUZU.**

Durangon, herritarrei laguntzeko eskualde-bulego bat ireki dugu. Bulego horretan, aukera izango duzu Bizkaiko Foru Aldundiarekin egin behar dituzun gestioak Bilboraino joan gabe egiteko. Beraz, denbora aurreztuko duzu, eta lasaiago ibiliko zara.

BULEGO BERRIA DURANGON

Askatasun Etorbidea, 12. 48200 Durango

Eskatu hitzordua: 94 406 80 00

www.bizkaia.eus/hitzorduak

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Joskintza, eskulanak eta sukaldaritzaren bitartez, gizarteratzearen bidera

Badira 20 urte baino gehiago Caritasek tailer ezberdinak eskaintzen dituela Ermuan. Ez dira ohiko ikastaroak, oinarrian beste xede bat dutelako: familien gizarteratzea, hain zuzen ere. Gaur egun 25 ermuarretik gora dabilta formazio horietan, eta haien ondoan dihardute euren denbora eta ezagutzak ezeren truke ematen dizkieten hainbat begiralek ere.

“Josten ikasi eta nire gaztelania hobetu nahi nuen —dio Radia Moussaouik josteko makinari eragiten dion bitartean—. Jendea ezagutu nahi dut, bakarrik egotea ez delako ona, besteekin nahastatuta gusturago zaude beti”. Bera da aurtengo joskintza ikastaroan parte hartzen duen emakumeetako bat. Argi dauka josteaz gain, beste etekin batzuk aterako dizkiola formazio honi, eta hain justu horretan datza proiektua.

“Guk ez dugu ikastaroez hitz egiten, familiei zuzen-

dutako formazioei buruz baizik —dio tailerretako koordinatzailea den Esther Barrerok—. Jendea biltzeko lekua da hau, lagunak egiteko eta gaztelania praktikatzeko gunea. Aldi berean, partaideek etortzeko konpromisoa hartzen dute, eta ordutegi eta arau batzuk errespetatzeko erantzukizuna dute”.

Tailer hauetan mota askotariko jendeak hartzen du parte, jatorri, kultura eta hizkuntza ezberdina dutenek. “Hemengo jendea ere badator, gaur egun Caritasek laguntza ematen



dielako kanpokoei zein hemengoei neurri berean. Gainera, sarean egiten dugu lan Udaleko Zerbitzu Sozialekin, GKEekin, Zaldibarko psikiatrikoarekin... eta leku guzti hauetatik ere jendea etortzen zaigu”, dio Estherrek.

Azpimarratzen du, gainera, lagun horien jarrera oso ezberdina dela ikastaroaren hasieran eta amaieran. Hasieran beldurrez doazelako,

animo barik, eta bukaeran harremanak sortzen direlako, eta gauza asko konpartitzen dituztelako. “Eta adiskidetasun horrek hemendik kanpo irauten du”, dio Barrerok.

Eta parte hartzaileen ondoan, jakina, begiraleak daude, proiektu honetan ezinbestekoak direnak. Mari Carmen Jiménez, Carmen Goy eta Angelines García dira joskintza ikas-

Bitxi-denda Tailer propicia Edojurdenda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810



GERALEKU

Bar Geraleku Taberna

Paco autobus geltokiaren ondoan gaude



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

2017ko urtarila

taroko arduradunak eta batz beste, 15 urte daramatzate begirale moduan. Aurten, gainera, laguntzailer berria dute, Valentina. "Praka barrenak jaso, soineko bat zabaldu eta estutu, botoi-zuloak egin, josteko makina erabili, kremaileak ipini eta oinarriko gauzatxoak konpontzen irakastea da gure betebeharrak", azaldu du Angelinek. Baina zerk lotzen ditu ikastaroetara horrenbeste urte eta gero? "Niri gustatzen zait dakidana erakustea —dio Carmenek—, eta asebetetzen nau jakiteak jendeak hemendik irteten denean zerbait egiten dakiela". "Nik abentura bezala hartu nuen, eta gero kontua luzatzen joan zitzaidan. Orain, hona ez bator, zerbait falta zait", dio Mari Carmenek.

Aukera gehiago

Joskintzan gain, eskulanean eta sukaldaritzan trebatzen dira parte hartzaileak. Izan ere, joskintza tailerretik eskulanetakoak jaio zen orain dela 4 urte. "Pertsona batzuk denbora dezente zeramaten joskintzan, eta konturatu ginen beste zerbait eskaini behar genieni", dio Estherrek. Vainicak, gurutzepuntua eta kakorraz-lana egitea zen eskulanetako zeregina, baina gaur egun denetik egiten dute: brotzeak, orratzak ipintzeko euskarriak, alfonbra txikiak, beira margotu, jaboia egin, EVA goma landu... eta den-dena birziklatutako materialarekin egiten dute.

Rafi León, Montse Fresno eta Arrate Lapazaran dira bultzatzaile eta ardu-



radunak, eta eurekin batera mahaiaren bueltan hamabost parte hartzaile daude aurten, adin eta jatorri guztietakoak, eta tartean ermuarrak zein mallabitarrak.

Azkenik, sukaldaritzako ikastaroa dago, joskintzako bezain zaharra dena. Besteak ez bezala, horrek hiru hilabete bakarrik irauten du, eta martxoan hasiko da. Hemengo osagaiekin egindako janariak egiten erakusten zaie parte hartzaileei. "Konturatu ginen atzerritar askok zaintzaile moduan egiten duela lan, eta hemengo janari sinpleenak prestatzeko arazoak zituztela. Elikadurari buruzko hitzaldia ere jasotzen dute, eta noizean

behin bestelako hitzaldiak ere egiten ditugu: autoestimiaz, aurreiritziei buruz...", azaldu du koordinatzaileak.

Horrez gain, ikastaroetan parte hartzen duten emakume eta gizonen seme-alabez ere arduratzen da Caritas, helduen ikastaroak burutzen diren ordu berean. PASE izena du proiektu honek (gizarte- eta eskolaguntza proiektua, alegia), eta 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago. "Umeak hazten ari zaizkigunez —dio Estherrek—, aurre-nerabeekin lan egiteko proiektua lantzen dihardugu orain, eta jada 12 urtetik gorakoen taldetxoa ere sortu da".

Dorleta Vidal



Bobby Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurarentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

SPARA rehabilitazio + sostenibildetasun

BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eralkina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

HO EIE EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Jardiñeta, 3
20600 Eibar

MATRIKULA LIBREA Otsailaren 1etik 15era

ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA eta INGELESA

MATRIKULA EGITEKO:
www.eoieibarheo.hezkuntza.net

ARGIBIDE GEHIAGO: **eoieibarheo@gmail.com**
943.20.06.18

Jesus Santos, ehizako txakurren txapeliduna:

“Txakurra hezteak eguneroko lana eta sakrifizioa dakar”

Iazko urrian Italiako Cantalupo hirian egon zen Jesus Santos bere txakurrarekin, Dac de Playabarrarekin, bertan ospatu baitzen Ehizako Txakurren Europako Txapelketa. Han lortutako sailkapenak munduko txapelketara eramane zuten ermuar hau. 100 titulu inguru ditu.

- Nola moldatu zineten Cantalupon?

Nik txakurra gidatzen dut soilik, eta “4 bikain” bat egin genuen. Kalifikazio honen Top 10ean sartu gintuen, eta Danimarkara eramane gintuen urriaren 21 eta 22an, bertan ospatu baitzen Munduko Txapelketa. Nire txakurra setter ingelesa da, Dac de Playabarri, eta aitortu behar dut izan dudane txakurrik onena dela.

- Zertan datza horrelako txapelketa?

Bikoteka irteten gara zelai luze batera, eta bikote batek bukatzean besteak ekiten dio. Oso garrantzitsua da txakurrak beti haizearen alde korrika egitea, aurrez aurre. Lursailean dauden presak edo ehizatzeoak hauteman behar ditu, erakutsi eta hegan egitean jaurtigairik gabeko tiro bat egiten da. Txakurra geldi geratu behar da, hau da, ezin da presaren atzetik joan, ezin da ehizatu. Horri *punto* egitea deritzo. Lan erraza ematen du, baina ez da batere erraza. Gainera, fisikoki oso ondo egon behar duzu doan abiaduragatik eta

lursaila oso handia delako. Ideia egiteko, Ermuan hasi daiteke eta Durangon amaitu.


- Parte hartzen duzuen lehen aldian izan da?

Ez, 4 txapelketetan parte hartu izan dut Europa mailan. Hara joatea ez da lan erraza: Estatuko 4 txakur jotaten dira soilik, onenak, eta lehiaketetan 70 txakur inguru egon daitezke.

- Zer gaitasun behar ditu txakur batek ondo aritze-ko?

Txakur bakoitzak bere arrazako estandarra du, eta zenbat eta zehatzagoa izan hobea. Horrez gain, heziketa beharrezkoa da lehiaketan parte hartzeko. Lehenengo minutuan txakurraren jarra onak kontatzen du, baina gero hark egindako okerren batek txapelketatik kanpora eramane zaitzake. Txakurrak 20 minutu ditu bere trebetasunak eta barruan duen guttia azalertzeko, eta horrek eguneroko lana dakar, eguneroko esfortzua eta sakrifizioa. Alturan entrenatzen da, ahal izanez gero.

- Nolatan hasi zinen zale-tasun honekin?



Lagun batzuekin hasi nintzen, mundu honetan oso ezagunak direnak: Lorenzo Urra erandiotarra eta Iñaki Elorriaga zornotzarra. Eurekin asko ikasi nuen, eta 1996an aurkeztu nintzen txakurren epaile nazionala izateko azterketara. Horretan urte asko eman eta gero, asko ikasita, noski, maila altuan lehiatzera ausartu nintzen.

- Orain arte lortutako zein emaitza nabarmenduko zenituzke?

Gaur egunera arte “2 bikain” lortu ditugu Europako txapelketan, Nissen (Serbian) 2011ko martxoan. Beste “2 bikain” Greziako Ollagorras Europako txapelketan, 2012ko abenduan. Mun-

du osoko trofeorik ezagunena Estatuko bi txakurrek bakarrik irabazi dute: kasualitatez Dac-en aitona Lider de Playabarrak (Juan Jose Alea bizkaitarrarena) 2002an, eta nire txakurrak, 2012an Vassibierren (Frantzia), 3 egun lehiatzen egon ostean. Horrez gain, beste zenbait sari irabazi izan ditut: Andaluziako txapelketa 2010ean, 3 Errege Kopa 2010ean, Bizkaitxo Txapelketa 2010, 2011 eta 2012an, eta ia 70 lehiaketa nazional eta nazioartekoak. 2016an lortu nituen: Euskadiko 3 txapelketa, Espainiako 4, Europako 4 eta top 10 zerrenda barruan egotea mundu mailan.

Armaia Arginzoniz

Ferreteria ANBOTO Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

esonline

+ @ + +

846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esonline.es

Txatxo jantziek beteko dituzte kaleak Hartza Egunean

Otsailaren 24an ospatuko da aurtengo Hartza Eguna, eta iaz bezala, euskal inauterietako mozerroak janzteko deialdia egin dute antolatzaileek. Aurten, gainera, jantzi horiek prestatzen ikasteko tailerra egingo da aurretik, Gurasolagun ekimenaren barruan.

Ohiturei eutsita, Hartza Eguna egingo da Ermuan Eguen Zuri biharamunean. 18:00etan hasiko da kalejira plazan, eta hainbat ume arduratuko dira hartza kateatua eramateaz. Bukatutakoan, ohi bezala, ogitartekoak banatuko dira. Baina ohiturak berritzen doaz, eta iaz Txindurri Dantza eta Txistu Taldeak inauteri dantzak eskaini zituen lehen aldiz, eta Euskal Herriko inauterietako jantziak soinean eramateko eskaera egin zuten.

Iaz abiatutako ekimen horri jarraipena eman nahian, euskal jantziak, kapelak eta osagarriak prestatzen laguntzeko tailerra egingo da Hartza Eguna baino lehen. Gurasolaguneko saio baten bitartez bideratuko da ikastaro-

txoa, eta otsailaren 17an burutuko da, ostirala, 17:00etatik 18:30era Lobianon. Antixiketari aisialdi taldeak hartuko du horren ardura, eta gurasoek eta seme-alabek elkarrekin lan egiteko aukera izango dute. Doako jarduera izango da, eta herritar guztiei irekita dago, baina ezinbestekoa izango da aurretik izena ematea (639414205 telefonoan edo ermua_berba@aek.eus helbidean).

Hartza Egunaren antolatzaileak dira Euskal Birusa Elkarteak, Anaitasuna Ikastola, Eskolabarri Eskola, Kaltxango AEK Euskaltegia, Udal Euskaltegia eta Txindurri Dantza eta Txistu Taldea. Ekimen jendetsu honen babeslea Ermuko Udala da, eta CaixaBank du laguntzaile.

Dorleta Vidal



hartza eguna

Otsailaren 24an, ostirala, 18:00etan, plazan.

Antolatzaileak: Euskal Birusa - Anaitasuna Ikastola - Eskolabarri - Kaltxango AEK Euskaltegia - Udal Euskaltegia - Txindurri

BABESLEA:



ERMUKO UDALA

LAGUNTZAILEA:



CaixaBank



arral97.com

arral

Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- Nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com



TORREKUJA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekuja kalea 2 - Ermua
943 17 69 29

A N A E R D O I Z A

- Astetxo batzuk jubilatuzarela. Damututa agian?

Ez, lekua laga behar da beste pertsona batzuentzako eta aprobetxatu 60 urte ditudala eta ez 65, fisikoki igarri egiten da-eta. Dena den, bertigo apur bat bai sentitzen dudala, ez dakidalako zelan beteko dudak eskolak, umeek eta lankideek uzten didaten hutsune emozionala. Denbora beteko dut, horretarako ez daukat arazorik, baina eskolak ematen didana zelan ordezkatu ote dudan zer pentsatua ematen dit.

- 36 urteko ibilbidean, zer azpimarratuko zenuke?

Gauza onak ditut bakarrik buruan! Urteak igaro ahal, gusturago egon naiz lanean. Beti izan dut gogoia ikasteko, proiektu berriak hasteko... eta ilusioz sentidu naiz azken egunera arte. Gure eskola eta Mallabia irlatxo bat dira irakaskuntzan eta horrek desgastatu eta erre barik amaitzea ahalbidetu dit.

- Sarritan ikasle izandako umeak guraso egiten ikusiko zenituen. Zer sentitzen da?

Emozio handia! Askotan egoten naiz jolas-orduan begira, umeon gurasoak zelakoak ziren gogoratzen eta, antz fisikotik aparte, izakeran berdintasun ugari topatzen dizkiet. Polita da!

- Orokorrean, zertan aldatu dira gurasoak?

Durangarra. Ezkondua eta alaba baten ama. Mallabiko eskolan 36 urtez irakasle legez jardun ostean, jubilatua egin da eta gogotsu oratu dio aro berri honi ere.

Presenteago daude, eskolako parte eta partaide izatearen kontzientzia dute.

- Eta umeak?

Ez dakit ba, umeak ume! Batzuk diote, umeago direla, lehengo 6. mailakoak oraingoak baino helduagoak zirela, baina ez zait horrela iruditzen. Gauza horiek apurka-apurka ematen dira eta ez dut horren kontzientziarik.

- Eta eskola?

Asko aldatu da, bai. Onera eta zentsu guztietan. Gure eskolan, adibidez, ildo be-

retik goaz irakasle guztiok eta umea da abiapuntu, arlo kontzeptualaren beste garrantzia edo agian gehiago umearen emozioek eta ongizateak duelarik. Umeengan pentsatze hori asko baloratzen dudan gauza da.

- Denbora da orain duzuna. Zertan ematen duzu?

Oraindik antolatzen nabil. Helburuetako bat da nire burua zaintzea eta aukera ezberdinak frogatzen nabil: paseatzera noa, piszi-nara, yogara... Egutero denbora bat eskaini nahi

diot. Gerora hasiko naiz zaletasunekin.

- Zure jubilazioaren ospakizunetatik, zerekin gertatzen zara?

Buah! Egutero kotasunean beti oso maitatua sentitu izan naiz lankideengandik, nahiz eta adinduenan izan eta gazte artean egon. Ume eta gurasoengandik ere beste horrenbeste. Eta azken egunetako agurrak, hainbeste detaile politekin, kariño horren frogar besterik ez dira izan. Ez nuen espero eta txundituta bizi izan dut, guztia bihotzetik esana eta egin sentitu dudalako. Amestu ahal nuen amaierarik onena izan da! Puztuta joan naiz!

- Zerk sutzen du Ana Erdoiza?

Jendearen komentario maltzurrek, atzetik gauzak esaten ibiltzeak, hipokresiak...

- Eta zerk baretzen?

Arnasketak egitetik aparte, oso kargatuta nagoenean, irten kanpora eta haizea hartu behar izaten dut, oxigenoa.

- Ametsik betetzeke?

Denboraldi batez beste toki batera bizi izatera joatea eta marrazten ikastea.

- Berrito jaioko bazina zer izatea nahiko zenuke?

Diseinuarekin lotutako zerbait ikastea gustatuko litzaidaken arren, irakaskuntza aukeratuko nuke berriro ere.

Estibalitz González

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Gurasolagun egitasmoa burutu da Eskolabarrin

Aurten ekintza berria abiatu da Eskolabarrin, Berbalagun egitasmoarekin batera. Gurasolagun du izena, eta horren bitartez, Eskolabarriko guraso batzuk astean behin elkartzen dira euskararen erabilera bultzatzeko. Proiektu honetan euskaltzale guztiak dute lekua: bai euskaraz bizi direnek, bai euskaraz bizi nahi dutenek ere.

Aukera paregabea iruditzen zaigu, gure eskolako familien artean euskara eta euskararen erabilera sustatzeko.

Izan ere, Eskolabari euskararen alde dago, eta horren adierazle da gure Euskara Batzordea. Irakasle, ikasle eta familien ordezkariekin osatutako talde honek euskararen normalizazioa lortu nahi du: eskolan, familian eta herrian. Horretarako honako plangintza du:

- Eskolan euskararen erabilera bultzatzeko hainbat ekintza egiten ditu: Juanita Ibaibarriaga Literatur Lehiaketa, antzezlanak, irrati saioak, ipuin kontalariak, Tinko filmak, jolasak, Euskal Liburu eta Disko Azoka, Euskararen Eguna, Olenzero...

- Familian, euskararen transmisioa etxeko esparruan handitzeko, jarduera desberdinak antolatzen ditu: Bularretik Mintzora "motxila" proiektua, Gurasolagun, Euskara Batzordean partaidea, Eskolako Web orria...

- Herrian euskararen presentzia handitzeko, antolatutako ekintzetan parte hartzen dugu: Korrika Txikia, Berbetan Jardunaldiak, San Martin Azoka, Santa Ageda, Hartza eguna, Oilar eguna...

Eskolabarriko bi ikaslek saria jaso dute

3. mailako Aimar Mandiolaren *Peruren Ametsa* eta 6. mailako Libe Telleriaren *Lurperatutako misterioak* sarituak izan dira Juanita Ibaibarriaga Literatur Lehiaketan! Zorionak bioi!



San Blas eguna ospatzen

Eskolabarriko ikasle guztiak, beste behin ere, goitik behera irinaz zikinduko dira San Blas opila egiteko. Era honetan, txikiek zein nagusiek benetan gozatuko dute kurrikulumeko "Errezeta" proiektu esanguratsua eginez eta bertako kultura barneratuz. Hiru hizkuntzatan azalpen-testuak lantzeaz gain, errezeta bat nola egiten den, elikadura osasungarria zer den, pisu unitateak eta askoz ere gauza gehiago ikasten dituzte.

Proiektuari amaiera emateko, San Blas opil gozoak egiten ditugu.





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44



san pelayo
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!

 **Egokitutako burua garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



Hezkuntza Ermuan. Zeri begira daude Ermuan eta EAEn agintzen dutenak?

Batzuetan, sarri agian, herritar askok uste izaten dugu politikarien kezka, asmoak edota interesak ez datozela bat guk dauzkagunekin.

PISA informea argitaratzeak hizpide bihurtu du hezkuntza azken hilaletan. Hala ere, gaiaren oihartzuna makaldu da, ez dago komunikabideen titularretan, eta hiritarren elkarrizketetan ere moteldu da. Orain Hezkuntza komunitate osoari dagokigu gaia aztertu eta, beharrezkoak balira, zuzentze jarduerak programatzea.

Ermuan badaukagu zer hobetu hezkuntza arloan. Gure zinegotziek, gaiak kezkatuta, hainbat ekimen jarri dituzte martxan 2016. urtean. Santa Ana auzoan dagoen eskolaren berriztapena izan daiteke garrantzitsuena. Ermuko Institutuaren egoera ere aztertu omen dute Udala Gobernu Batzordearen bitartez. Nik, ordea, zoritxarrez, ez dut ezagutzen egoera tamalgarriari irtenbidea emateko hartutako erabakirik (halakorik hartu bada, behintzat).

Ermuko ikasle gehienek bertako Eskola Publikoan egiten dituzte bere ikasketak. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek hiru ikastetxetan: San Lorenzo, Ongarai eta Anai-

tasunan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergokoek, berriz, Ermua BHIIn. Ikasleen garapen integrala bideratzeko proiektu anitzak prestatu eta burutzen dituzte, giza baliabide sendoa dela medio. Gaur egun proiektu horiek burutzeko dagoen espazioaren banaketa oso eskasa da, ordea, herrian dauden eraikinak kontuan hartuta. Sallabentent badago eraikin bat, auzoko eskolaren beharrak duintasunez asetzen dituena. Arazoa da, Ongarai auzoan dagoen hezkuntza esparruaren banaketa desegokia. Lehen Hezkuntzarako diseinatutako bi eraikin daude, hiru ikastetxe hartzen dituztenak. Eta Bigarren Hezkuntzarako eraikin bat, bi ikastetxe hartzen dituena.

A eraikinean Ongarai eskola eta Ermua BHI daude. Ongarai eskolak 2 urtetik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko ikasleak ditu. Ermua BHIk, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak.

B eraikinean Anaitasuna Ikastola eta Ermua BHI daude. Anaitasunak 2 urtetik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko ikasleak ditu. Eta Ermua BHIk, DBHko 3. eta 4. mailakoak.

C eraikina institutua da. Ermua BHIko Batxilerreko 1. eta 2. mailako ikasleak dabilta hor, eta UNI Eibar-



Gaizka Areitioaurtena

Ermua BHIko Heziketa Zikloko ikasleak (Ermutik kanpokoak gehienak).

Egoera eramanezina da:

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeek ez dute toki nahikoa bere Hezkuntza Proiektua baldintza optimoetan garatzeko, beraien eraikina DBHkoekin partekatzea behartuta daudelako.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eskaintzen dituen ikastetxea hiru eraikinetan banatuta dago, Hezkuntza Kalitatearen kalterako; izan ere, Ermua BHIk beharko lukeen eraikina Eibarko ikastetxe batek erabiltzen du.

Arazo honen irtenbidea politikoen esku dago. Eusko Jaurlaritzari dagokio erabakiak hartzea egoera ja-sangaitz hau konpontzeko; EAJri eta PSEri, hain zuzen ere. Behin eta berriz entzun izan diet bi alderdiotako ordezkariak herritarren arazoak konpontzeko daudela Jaurlaritzan. Bada, Ermuan badute zeri heldu. Bi alderdi horiek ordezkariak dute Ermuko Udalean. Zertarako daude? Zerbait egiteko prest daude? Badihardute? Ala ez da beraien lehen-tasuna? Ermuko Eskola Publikoan eskolatuta dauden 1.300 ikasleen familia, bai.

“ Arazoa da Ongarai auzoan
dagoen hezkuntza esparruaren
banaketa desegokia ”

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



Urtarrilaren 14an
Zorionak Javier zure 6. urtebetetzeari zure familia eta bereziki Libereri partez.



Urtarrilaren 12an
Zorionak neska handi!! Mila musu etxekoan partez.



Urtarrilaren 18an
Zorionak Gorka zure 4. urtebetetzeari, zure gurasi eta Anderren partez. Segi horren ume alai izaten.



Urtarrilaren 25ean
Zorionak, Aitor, urtarrilaren 25ean hiru urte bete dozuz-eta. Zakukada bat musu etxeko guztion partez.



Otsailaren 8an
Zorionak Luken zure 8. urtebetetzeari. Musu handi bat amatxo, aitatxo eta Aialari partez.



Otsailaren 13an
Zorionak Malen, 3 urte, 3 musu potolo eta handi bidaltzen dizkizute Andreari, Pellori, Juantxori eta Margari.



Urtarrilaren 18an eta otsailaren 5ean
Zorionak amatxo eta Luka. Zenbat ospakizun ditugun aurten!! Muxu pilo etxekoan partez. Maite zaituztegu!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com

Azken eguna: Otsailaren 15a.

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [B]

Caperos
Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) • 943 17 66 08

URRETA burdindenda
 ✕ Etxea ✕ Giltzak
 ✕ Tresneria ✕ Sarrailagintza
 ✕ Brikolajea ✕ Kit altzariak
 ✕ Enrailak
 Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

MALLABIA 1964

Argazki hau 1964 ingurukoa da. Gabon kantatzen zebiltzala atera zen argazkia.

Bertan agertzen dira: Lourdes Garitagoitia, Mari Tere Mallabiabarrena, Lourdes Mugarza, Mari Tere Arregi eta Rosario Ortuzar.



Bestalde, argazki hau topatu dugu gure artxiboetan, baina ez du kalitate nahikorik. Baten batek originala badu, mezu elektronikoa bidaltzea eskertuko genuke: drogeten@gmail.com



ERMUA 1972



Errege eguna zen eta Gabonetan Zineman egiten zen jaialdian hartu zuten parte argazkiko neskek. Atzeko ilaran, ezkerretik eskumara: Ana Mari Akasuso, Marivi Totorika, Inma Pagaldai, Lorea Agirregomezkorta, Marisabel Zubizarreta, Esther Zendoia, Nati Arregi, Idoia Olaizola eta Bea Urreta. Aurrekoan: Beatriz Etxeberria, Virginia Urreta, Eli Areitioaurtena, Amaia Txurruka, Bego Agirregomezkorta eta Miren Bego Idigoras.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKO

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Neapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Duela gutxi bukatu da aurtengo Tonbola Solidarioa, eta 10.000 euro pasatxo jaso ditu (udako eta neguko edizioak batuta). Diru kopuru hori hainbat elkartasun proiekturen artean banatu da. Zati bat jaso dute atzerrian dauden Niko Urreta, Hortensia Perosanz, Germán Saénz de Zaitegi eta Mireia Suárez ermuarren proiektuek. Beste zatia, Caritasi eman zaio.

**- Tonbola Solidarioa ezagutzen duzu? Eurekin kolaboratu izan duzu?
- Zer iruditzen zaizkizu euren helburuak?**



Egia esan ez nuen proiektua ezagutzen, beharbada ez naizelako sekula interesatu, baina ondo dagoela iruditzen zait eta helburu egokiak ditu. Hala ere, zabalkundea hobetuko nuke, informazio gehiago eman proiektua ezagutzera emateko.

Nagore Blázquez, 27 urte



Bai, ezagutzen dut eta inoiz kolaboratu izan dut, ahal izan dudanean. Ondo dago beharra duenari laguntzea, guztiok pasatu ditugulako garai txarrak. Gainera Ermua eredu da hainbat esparrutan, tartean elkartasunean, beti gaude laguntzeko prest.

José Barreiro, 72 urte



Bai, Tonbola Solidarioa ezagutzen dut eta eurekin kolaboratu izan dut noizean behin. Ondo dagoela iruditzen zait eta helburu aproposak dituela esango nuke. Gainera, azpimarratuko nuke herrian oso ezaguna dela.

Mari Carmen Carnero, 66 urte



Bai, eta parte hartu izan dut. Laguntza ematea den guztia ondo dago, eta Ermuak hori dauka: guztiok daude besteei emateko prest. Elkartasun-kultura handia dago, Don Teodorok ereindako haziak fruituak ematen ditu oraindik ere.

Javier A. Gragera, 28 urte

Tasio eta Sabino



- Famatu baten autografoa sari ona izango da beti. Tonbola Solidarioarentzat aproposena!



ZINEA

4tik 6ra
11tik 13ra
18tik 20ra
25etik 27ra
Zehaztu gabeko filmeak.
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 2
Hilak 9
Hilak 16
Hilak 23
Zehaztu gabeko filmeak.
Antzokian. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 5
Hilak 12
Hilak 19
Hilak 26
Zehaztu gabeko filmeak.
Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 17:
Kontzertua: Miss
Caffeína 22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 12€

Hilak 18:
Blues kontzertua:
Hendrik Röver y los
míticos GTS.
20:00etan. Lobiano
Kultur Gunean.
Sarrera: 8€

ANTZERKIA

Hilak 3:
"Jainko basatia", Txalo
Produkzioen eskutik.
22:15ean. Ermua
Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 10:
"Yllana 25", Yllana
taldearen eskutik.
22:15ean. Ermua
Antzokian. Sarrera: 12€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 4:
Ipuin kontaketa.
17:30ean. Lobiano
Kultur Gunean.

Hilak 11:
Ipuin kontaketa
ingelesez. 17:30ean.
Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 18:
Musikala: "Kaput",
Ganso & Cia taldearen
eskutik. 17:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

INAUTERIAK

Otsailaren 23an, osteguna. Eguen Zuri.

- 15:30ean: Oilarraren jokoa.
- 17:00etan: Diskofesta: Xaibor DJa.

Otsailaren 24an, ostirala. Hartza eguna.

- 18:00etan: Kalejira.

Otsailaren 25ean, larunbata.

- 12:30ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.
- 12:30an: Kalejira: Txindurri taldea.
- 17:30ean: Umeentzako txokolatada.
- 18:00etan: Umeentzako erromeria: TTR taldea.
- 19:00ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.
- 19:30ean: Umeentzako mozorro lehiaketa.
- 23:00etan: Dj Festa: Los 40 principales.

Otsailaren 28an, asteartea.

- 16:00etan: Umeentzako diskoteka.
- 18:00etan: Kale ikuskizuna:
"Asmakizun asmatzaileak".
- 19:00etan: Kalejira: Ustekabe txaranga.
- 23:00etan: Dj Festa Oihan Vegarekin.

Ekitaldi guztiak Cardenal Orbe Plazan

ERAKUSKETAK

Hilaren 12ra arte:
Margoa: Udal margo
eskolako ikasleen lanak.
Lobianon. 18:00etatik
20:00etara.

Hilaren 13tik 26ra:
Argazkiak: "Ermua
Antzokia 2016". Oscar
Blanco. Lobianon.
18:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

Hilak 4:
Agata Deunaren
kalejira. 18:00etatik.
Alboka Musika Eskolatik.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

**PRO
arraindegia**



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com




**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Tikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Maiden Florza

Aretxabaleta.
Enpresen Administrazioa
eta Zuzendaritza, 3. maila.



GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · OTSAILAK 4

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · OTSAILAK 11

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · URTARRILAK 28

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · OTSAILAK 11

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA · OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 9

OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

Mendi irteerak, kainoak, rafting, materialaren alokairua,
argazkiak, bideoak, informazioa, mapak, liburuak,
federatzeko tramiteak, ikastaroak, hitzaldiak...
eta jende ona benetan!



<http://www.artarrai.com>

<http://artarrai.blogspot.com/>
artarrai@euskalnet.net

ostegunero, 19:30etik 20:30era liburutegiaren gainean